

Nola jar naiteke harremanetan Alcaláko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin?

Bidali zure kontsulta gure helbide elektronikora
clinicallegal@uah.es

Gogoan izan:

Klinika Juridikoak doan eskaintzen du zerbitzu hori

GIBa duten pertsonei eskubideak baliatzeko aukera ematean espezializatuta dago

Zerbitzu anonimoa eta konfidentziala da

Zure kontsultei erantzuten dietenak Zuzenbideko ikasle eta irakasleak dira

DECADE katedra
Alcaláko Unibertsitatea
catedradecade@uah.es

Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

@ clinicallegal@uah.es

f ClinicaLegalUAH

🐦 ClinicaLegalUAH

HONAKO HAUEN LAGUNTZAREKIN:




Egonaldi laburra zera da, Espainian lehen aldiz sartzen denetik, seihileko bakoitzean gehienez ere 90 egunez egoteko baimena; ikasketek eragindako egonaldia, berriz luzeagoa izan daiteke. Egonaldi laburrak ez duenez bertan bizitzeko edo lan egiteko xederik, turismo-xe-dea baizik, turistaren edo turismorako egonaldia esaten zaio.

22 | Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

EU

GIBa eta migrazioa: egonaldi laburra eta ikasketek eragindako egonaldia



Universidad
de Alcalá

Egonaldi laburra: zer da?

Egonaldi laburra bisarekin edo bisarik gabe egin daiteke. Bisaren eskakizuna atzerritarren jatorrizko herrialdearen arabera izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1806 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bitartez, kanpo-mugak zeharkatzeko bisa nahitaez behar duten herritarren hirugarren herrialdeen zerrenda eta betebeharrak horretatik salbuetsita dauden hirugarren herrialdeen zerrenda ezartzen dira. Adibidez, Latinoamerikako herrialde gehienetako herritarren kasuan, ez zaie bisa eskatzen Espainian horrelako egonaldiak egiteko. Bisa nahitaezkoa duten herrialdeetako herritarrek Espainian sartu aurretik eskatu beharko dute.

Ikasketek eragindako egonaldia: zer da?

Europar Batasuneko ez den herrialde bateko atzerritarri 90 egunez baino gehiagoz Espainian egoteko baimena ematen dio, baldin eta helburu bakarra edo nagusia Espainian baimendutako ikastetxe batean ikasketak egitea edo zabaltzea badu, ikasketen titulu edo ziurtagiri bat lortzera bideratutako jardun osoko programa batean.

Egonaldi mota hori egiteko, nahitaezkoa da ikasketa-bisa eskatzea, ikastaroak, ikasketak, ikerketa- edo prestakuntza-lanak, ikasleen trukeak, lanekoak edo diren praktikak egiteko edo boluntariotza-zerbitzuak emateko, lan-saririk gabe. Ikasketa-bisaren eskaera Espainian sartu aurretik edo Espainiara iritsitakoan egin daiteke. Bisa hori eskatzeko, ziurtagiri mediko baten bitartez egiaztatu behar da eskatzaileek ez dutela osasun publikoan ondorio larriak izan ditzakeen gaixotasunik, 2005eko Nazioarteko Osasun Erregelamenduan (NOE) xedatutakoaren arabera, eta dagokion agintaritzak egin beharreko oharra eginda. GIBa ez da agertzen NOEaren gaixotasunen zerrendan, ez baita osasun publikoko arazotzat hartzen; beraz, ez da bisa lortzeko eragozpen bat.

Egonaldi laburra eta ikasketek eragindako egonaldia luzatu al daitezke?

Bai. Egonaldiaren denbora igarotakoan, Espainian jarraitu ahal izateko egonaldiaren luzapena edo bizileku-baimena lortu beharko da. Bisarekin sartzen den kasuetan, bisaren iraupena hiru hilabetetik beherakoa bada, egonaldia luzatu ahal izango da, baina gehenez ere hiru hilabete izango da, sei hilabeteko epean. Bisarik gabe sartzen diren kasuetan, hori justifikatzen duten aparteko inguruabarrak daudenean, atzerritarra Espainiako lurraldean hiru hilabetetik gora egoteko baimena eman ahal izango da.

Ikasketek eragindako egonaldiari dagokionez, egonaldia urtero luzatu ahal izango da, baldin eta interesdunak egiaztatzen badu Espainian geratzeko baimena eman zitzaion jarduerari buruzko baldintzak betetzen jarraitzen dituela. Egonaldi-baimena aldi baterako beste bizileku-baimen batzuekin aldatzeko aukera ere badago, betiere legezko baldintzak betetzen badira.

Egonaldi laburra edo ikasketek eragindako egonaldia baimenduta duten migratzaileek erretrobirusen aurkako tratamendua jaso al dezakete doan?

Ez. Atzerritarra turista gisa 3 hilabeteko (90 eguneko) aldi horretan dagoen bitartean edo ikasketek eragindako egonaldiak irauten duen bitartean, ez du funts publikoen kargurako asistentzia sanitarioa jasotzeko eskubiderik izango Espainian. Izan ere, 90 egunetik beherako egonaldiak turismotzat hartzen dira, eta turista batek eta ikasle-bisa duten atzerritarrek, Espainiako legearen arabera, mediku-aseguru bat kontratatu behar dute, Espainiako estatuko egonaldian asistentzia sanitarioaren gastuak estaltzeko. Atzerritarra aldi horretan osasun-zentro edo ospitale batera joaten bada, ospitaleak legezko arazoak ditu emandako osasun-arreta kobratzeko (hala badagokio, bai egindako analisi medikoak, bai GIBerako medikazioa), salbu eta Europako Osasun Txartela berekin badu edo haren jatorrizko herrialdeak alde biko hitzarmena badu Espainiarekin osasun-prestazioen arloan.

Ekar al daiteke erretrobirusen aurkako botikarik Espainiara?

Egonaldiaren iraupena 90 egun edo gutxiago bada, erretrobirusen aurkako botikak ekartzea gomendatzen da, 3 hilabeterako adina. Europar Batasunean xedatuta dago pertsona batek gehenez hiru hilabeterako sendagaiak eraman ditzakeela berekin. Botikak eskuko bagajea, botiken jatorrizko ontzietan, dagokion erabilera-orriarekin eta mediku-errezetekin batera garraiatzea gomendatzen da, botika horiek zuk erabiltzeko direla frogatu ahal izateko, zure gaixotasunaren tratamenduan.

Zer egin behar da egonaldian botikarik ez badugu? Behar izanez gero, hiru aukera egongo lirateke:

- 1) Osasun-zentroko edo ospitaleko gizarte-laneko profesionalaren aldeko txostena eskatzea, osasun-sistema baliatzeko premia jasotzen duena.
- 2) Ikasketa-bisa duten atzerritarren kasuan soilik, bisarekin bateragarria den lan-baimena eska daiteke eta, baimen horrekin, Gizarte Segurantzian kotizatzeke eta osasun-prestazioa jasotzeko aukera izango luke.
- 3) GIBa duten pertsonen arreta ematen espezializatutako GKE batera jotzea, orientazioa eta laguntza jasotzeko.